

Suak eta suhiltzaileak

**Xabier Mikel
ERREKONDO**

Bizi dabil sua bazterretan. Temperatura larriki igotzea ez da nahikoa nonbait, eta suzko bola dirudi gure lur bakar eta aberats bezain gaztigatuak. Ahal duten guztia egiten dutela diote politikariek, eta, heziketa parabola batez, ardura herritarren bizkarrera jaurti.

Ohikoak dira halako txahalak agintarien menuetan.

Bada politikariak piromano hutsak direla pentsatzen duenik, ordezkatzen duten gizartearen arazoak bideratu eta giroa baretu beharrean, ezinegona eta desesperazioa hauspotu egiten dutela, besteen sufrimenduak plazer apartekoa emango balie legez...

Modan daude suak, eta ez naiz ari Kontxako barandatik bisigu begiekin ikusten ditugunez. Suteak nonahi, planeta erretzen ari gara eta, bide batez, gizakiona ere bai. Ergelak.

Herri txiki honetan aspaldi ikasi genuen irtenbide unibertsalaren zain geratzea arazoari bizkar ematea dela eta, aitzitik, bertatik bertara makina bat pauso eman daitezkeela.

Boteprontoan, eta lehentasunez, basogintza politika eraginkor bat izan beharko genuke; eta bestetik, erabat ezinbestekoa dena: zaintzak politikaren zentralitatea irabazi duen honetan, zaintzen gaituztenak zaintzea litzateke ekintza burutsuena, hau da,

suhiltzaileak piromanoen suteetatik babestea.

Ulergaitza egiten da Donostiako Udala suarekin jolasean dabilela ikus-tea, eta bere suhiltzaileak protestan dabiltzala irakurtzea gutxietsiak sentitzen direlako, eta plangintza eta baliabide faltan, suteei eta erreskate lan arriskutsuei garantia maximoekin aurre egiteko aski berme ez dutelako.

Goia jo du beren pazientziak eta Goia jauna jo dute arduradun.

Gauzak horrela, suteek jarraitu egingo dute, politikari-piromanoek sua ez pizteko neurri nahikorik hartuko ez dutelako. Bada, sua hiltzeko, zaindu suhiltzaileak, arren. •

Beste Rubiales batzuk

Asier Aiestaran

Zaila da Rubiales eta enparauen inguruan ezer berririk esatea. Argi utzi dute futbol munduko agintarien maila zein den eta, bide batez, argi erakutsi digute gure futbola noren eskuetan dagoen. Zeren, bai, Hego Euskal Herriko futbolaren nondik norakoak jendilaje horrek erabakitzen ditu –eta UEFAko zuzendaritzan ere sartuta daudela kontuan izanda, Ipar Euskal Herrikoa ere bai, hein handi batean–.

Hori esanda, eta irakurketa orokorrago batean, bada kezkatzen nauen kontu bat. Pentsa liteke horrelako gertae-

ren aurrean sortzen den gizartearen erreakzioak –sare sozialetan biderkatu egiten dena– pertsona horien eta ingurukoen jarrerak aldatzeko balio beharko lukeela, baina uste dut ateratzen duten ondorioa beste bat dela: “kontuz ibili beharra daukat, gauza hauek ezin dira hedabideen aurrean egin”.

Oso argigarria da Rubiales beraren adierazpenak entzutea “barkamena eskatzeko” egin zuen bideoan, «hemen ez dugu arazorik ikusi, baina antza denez kanpoan polemika sortu dute» mezua luzatuz, eta arazoaren muina testuinguruan soilik kokatuz: «Espainiako

federazioko presidenteak ezin du horrela jokatu palko batean».

Arazoa askoz sakonagoa da eta, horrelako gertaerek beharrezkotzat jotzen dugun hezkuntza lan horretan laguntzea nahi badugu, denoi dagokigu edozein jardueraren inguruan gabiltzanean, kasu honetan kirolean, izaten ditugun edo ikusten ditugun jarrera eta jokaera desegokiez hausnartzea eta aldatzen saiatzea. Bestela, eta kameraz kanpoko gure egunerokoan jokabide berdinekin jarraitzen badugu, gutxien espero dugunean, beste Rubiales batzuk azalduko zaizkigu aldamenean. •